

EUSKARA IKASTAROAK 1-2-3 HE

2013-2014 IKASTURTEA

EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOETAKO LANGILEENTZAKO IKASTAROAK

Argibide gehiago:

- EHAAn: 2013ko apirilaren XXkoa
- Saitetako Zerbitzu Zuzendaritzetan
- IVAPeko Hizkuntza Prestakuntza eta Normalizazio Zerbitzuan
- www.ivap.euskadi.net (Euskera >Euskara ikastaroak > 1-2-3HE prestatzeko ikastaroak)
- Eusko Jaurlaritzako intraneten: www.ivap.jakina

NORI ZUZENDUA

Ikastaroetan EAEko Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomoetako langileek hartu ahal izango dute parte.

EAEko herri-administrazioetako euskararen normalizazio prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretuari jarraiki, deialdi honetatik kanpo daude irakasleak, ertzainak eta Osakidetzako zein Justizia Administrazioko langileak.

IVAPek eskaintzen duen hizkuntza prestakuntza daukan aurrekontuaren arabera izango da.

LANORDUETAKO IKASTAROAK

➤ **Eskaera epea lanorduetan ikasteko**

Maiatzaren 9tik 25era (biak barne)

➤ **Eskaera egiteko modua**

Bi bide daude eskaera egiteko:

- a) **Ordenagailu bidezko eskaerak:** Interesatuak bere ordenagailutik egin ahal izango du eskaera, ezarritako epearen barruan, euskara ikastaroetarako aplikazioaren bidez eta ondorengo helbidean:

www.ivap.jakina

(aplikazioan sartzeko, egin klik "euskara ikastaroak" ikonoan eta ondoren *nire prozesuak* menuan)

- b) **Inprimaki bidezko eskabideak:** Inprimakiak honako helbide elektronikoan daude:

www.ivap.euskadi.net

(euskara > euskara ikastaroak > 1-2-3HE prestatzeko ikastaroak > eskabidea egiteko inprimakia)

Interesatuak, ezarritako epearen barruan, saileko Zerbitzu Zuzendaritzara bidali behar du eskaera.

Lanorduetako eskaerak sail bakoitzak onartuko edo ukatuko ditu.

➤ **Ikastaroak antolatzea**

IVAPek, ahal den neurrian betiere, goizez bakarrik osatuko ditu administrazioko ikastaldeak beheko hiriburu eta ordutegietan :

o – 5 ordutan: Bilbon, Donostian eta Gasteizen

o – 2 ordutan goizez (8:00-10:00): Bilbon, Gasteizen eta Donostian

Arratsaldeetan edo gainontzeko ordutegietan ikasi nahi dutenei matrikula-orria emango die IVAPek nahi duten euskaltegi homologotuan matrikula daitezen.

➤ **Administrazioko taldeen ezaugarriak:**

Administrazioko langileez osaturiko taldeek ondorengo ordutegi eta egutegiak izango dituzte:



MODULUA	HERRIA	ORDUTEGIA	HASIERA	AMAIERA
5 ordu	Bilbo eta Donostia	8:00-14:00	2013-10-01	2014-02-14
	Gasteiz	8:30-14:30		
2 ordu goizez	Bilbo ,Gasteiz eta Donostia	8:00-10:00	2013-10-01	2014-05-30

Administrazioako taldeetan ez, baizik eta beste euskaltegi batzuetako taldeetan eskolatzen diren ikasleek tokian tokiko euskaltegiaren ordutegia eta egutegia jarraitu beharko dituzte.

Barnetegiko ikastaroak: Zornotzako barnetegian eta Lazkaoko Maizpide euskaltegian egin ahal izango dira. Egutegiak eta ordutegiak euskaltegi horien eskaintzaren arabera izango dira.

➤ Lanorduetako ikastaroetarako baimena

Baimena eskatzailearen saileko Zerbitzu Zuzendaritzak emango du, Funtzio Publikoko Sailburuordetzak ezarritako lehentasun-irizpideekin bat etorrita.

➤ Ordu-kreditua

Lanorduetako ikastaroek dagokienez, ordu-kreditua ezartzen duen Aginduari jarraituko zaio (Agindua, 2004ko apirilaren 30ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, EAEko Administrazioako langileen euskalduntzean aplikatuko diren ordu-kredituak ezartzen dituen; EHAA: 2004-5-7; 85. zka).

Ondorioz, lanorduetan ikastaro bat hasi ahal izateko, beharrezkoa izango da orduak agortu gabe edukitzea.

➤ Mailaketa probari buruz

IVAPek, eskatzailearen mailaren berri ez badu, mailaketa proba egitera deituko du. Eskerari adierazi duten tokia eta ordutegia kontuan izanda, administrazioako taldeetan sar daitezkeen eskatzaileak baino ez dira deituko proba egitera. Lehen urratetik hasi behar duten eskatzaileek ez dute mailaketa probarik egin behar. Mailaketa probak ekainaren bigarren hamabostaldian egingo direla aurreikusten du IVAPek.

Probara deituak nahitaez aurkeztu behar dira. **Aurkezten ez denaren eskaera bazter utziko du IVAPek.** Hala ere, bigarren aukera bat izan dezake, aurkeztu ez izana egoki eta garaiz arrazoitzen bada. Horretarako, langilearen Zerbitzu Zuzendaritzak idazki bat bidali behar du IVAPera, beranduen ere, **proba egunetik 2 egun balioduneko epean**. Bigarren dei honetara ere aurkezten ez bada, IVAPek ukatu egingo du eskaera

➤ Matrikula orria lanorduetan

Matrikula orriaren bitartez, lanorduetan egiten den ikastaroak baldintza hauek bete behar ditu:

1. Urritik ekainera bitartekoa izan behar du. Barnetegiko eta egunean 5 orduko ikastaroen kasuan, ikastaroek gutxienez lauhileko iraupena izan behar dute.
2. HABEk homologatua izan behar du.
3. Matrikula orriaren bidez ezingo da autoikaskuntza ikastarorik egin lanorduetan.

Ezinezbestekoa izango da matrikula orria euskaltegian aurkeztuta izatea ikastaroa hasten denerako. 2013ko **urriaren 18a** baino geroago entregatzen bada, IVAPek ez du matrikula ordainduko.

➤ **Autoikaskuntza lanorduetan**

Autoikaskuntza sistemaren bitartez ikasten duten ikasleek urtebetez izango dute programa erabilgarri eta astean ordu beteko mintza saioa izango dute ikasturtean zehar.

Autoikaskuntza-sistema erabili ahal izateko, langileek hurrengo baldintzak bete behar dituzte:

- a) Euskarazko eskoletara lanorduetan joateko baimena izatea.
- b) Lanpostuaren izaera, eginkizunak, lan-egutegia edo beste edozein arrazoi dela-eta, euskarazko ikastaroetara modu jarraian eta normalean joateko zailtasunak izatea (horren berri emateko Zerbitzu Zuzendaritza bakoitzak bidali beharko du IVAPera langile bakoitzari buruzko txostena)

➤ **Autoikaskuntzako mailaketa probak**

Mintza-saioetarako talde homogeneoak antolatzearen, autoikaskuntzaz baliatzen diren langileek bi mailaketa-proba egin behar dituzte ikastaroaren hasieran:

- a) Autoikaskuntza-programaren hasierako maila zehazteko proba (internet bidez egingo da)
- b) Mailaketa-proba estandarra (HABEren urratsen arabera), betiere, IVAPek ikasle horren mailari buruzko erreferentziarik ez badu.

➤ **Ikastaroan hastea**

Ikasle guztiak lehen eskola-egunetik joan behar dira eskolara. Nolanahi ere, **IVAPek ez du onartuko eskolan urriaren 18a baino geroago hasterik**. Hori dela-eta, IVAPek **baja emango die** urriaren 18rako eskolatan hasi ez diren eskatzaileei, eta ez du matrikula ordainduko.

➤ **Eskolara joateari uztea lanorduetan**

Eskolan hasi ondoren ikasleak ikastaroa behin betiko uzten badu, horren berri eman behar dio ikasleak IVAPi eskola uztea gertatzen den une berean.

Horretarako, "*Jakinarazpena: eskoletara joateari uztea*" izeneko inprimakia bete eta IVAPera bidali behar du ikasleak.

Eskola-uztearen data inprimakia IVAPen erregistroan sartu den eguna izango da. Inprimakia IVAPera iritsi arte ez da ordu-kredituaren kontaketa etengo.

Ordu-kredituaren ondorioetarako, oso garrantzitsua izango da inprimakia IVAPera lehenbailehen bidaltzea.

Inprimakia honako helbide elektroniko honetan eskura daiteke:

www.ivap.euskadi.net (euskara > euskara ikastaroak > Zer egin ikastaroa behin betiko uzteko? > eskola-uztea jakinarazteko inprimakia)



Azkenik, IVAPen zeregina izango da ikaslearen erakundeari eskola-uztearen berri ematea.

LANORDUZ KANPOKO IKASTAROAK

- **Eskaera epea lanorduz kanpo**
Ekainaren 10etik 26ra bitartean (biak barne).
- **Eskaera egiteko modua**
Bi bide daude eskaera egiteko:
 - a) **Ordenagailu bidezko eskaerak:** Interesatuak bere ordenagailutik egin ahal izango du eskaera, ezarritako epearen barruan, euskara ikastaroetarako aplikazioaren bidez eta ondorengo helbide elektronikoan:
www.ivap.jakina
(aplikazioan sartzeko, egin klik "euskara ikastaroak" ikonoan eta ondoren *nire prozesuak* menuan)
 - b) **Inprimaki bidezko eskabideak:** Inprimakiak honako helbide elektronikoan daude:
www.ivap.euskadi.net
(euskara > euskara ikastaroak > 1-2-3 HE prestatzeko ikastaroak > eskabidea egiteko inprimakia)

Interesatuak, ezarritako epearen barruan, IVAPera bidali behar du eskaera.

Lanorduz kanpoko eskaerak IVAPek onartuko edo baztertuko ditu. 2013-2014ko eskaera onartzeko, 2012-2013 ikasturtean aprobetxamendu irizpidea bete beharko dute ikasleek.

- **Lanorduz kanpoko ikastaroak antolatzea**
Behin jasotako eskaerak aztertuta, IVAPek onartutako eskaerei dagozkien matrikula-orriak bidaliko du sail bakoitzeko Zerbitzu Zuzendaritzara.

Matrikula orriaren bitartez, lan ordutik kanpoko ikastaroak baldintza hauek bete behar ditu:

- a) **Urritik ekainera bitartekoa** izan behar da. Barnetegiko eta egunean 5 orduko ikastaroen kasuan, ikastaroak gutxienez lauhileko iraupena izan behar du.
- b) **HABEk homologatua** izan behar da.
- c) **Autoikaskuntza** motako ikastaroak, lanorduz kanpokoak betiere, gutxienez **190 ordu** izan beharko du. IVAPek **matrikula orri bakarra eta berezitua** emango die ikasleei, euskaltegi publiko edo pribatu homologatu batean edo autoikaskuntzako zentro homologatu batean matrikulatzeko. Autoikaskuntzako ikastaroetan izena emateko ezin izango da erabili IVAPek aurrez aurreko ikastaroetarako ematen duen ohiko matrikula orria.

Matrikula-orria IVAPek aurrez zehaztutako epea baino lehen aurkeztu beharko da, ikastaroak hasi aurretik. IVAPek ez du ordainduko 2013ko **urriaren 18a** baino geroago entregatutako matrikula-orriak.

Eskatzailea inolako ikastarotan matrikulatzen ez bada, haren erakundeak lehenbailehen itzuli beharko du matrikula-orria IVAPera (urriaren 18a baino lehen, betiere). Galdu edo hondatu delako ezinezkoa balitz matrikula-orria itzultzea, eskatzailearen erakundeak idatziz eman beharko dio egoeraren berri IVAPi.

Lanorduz kanpoko ikastaroek ez daude ordu-kredituen sistemaren barruan. Dena den, 2013-2014 ikasturtean **%80ko asistentziara iristen ez diren** ikasleek ezin izango dute 2014-2015 ikasturtean IVAPek ordainduta lanorduz kanpoko ikastarorik egin.

➤ **Eskolara joateari uztea lanorduz kanpoko ikastaroetan**

Eskolan hasi ondoren ikasleak ikastaroa behin betiko uzten badu, horren berri eman behar dio IVAPi eskola uztea gertatzen den une berean.

Horretarako, “*Jakinarazpena: eskoletara joateari uztea*” izeneko inprimakia bete eta IVAPera bidali behar du ikasleak.

Eskola-uztearen data inprimakia IVAPen erregistroan sartu den eguna izango da.

Beraz, ikastaroaren aprobetxamenduari begira, oso garrantzitsua da inprimakia ahalik eta azkarren bidaltzea.

Inprimakia honako helbide elektroniko honetan eskura daiteke:

www.ivap.euskadi.net (euskara > euskara ikastaroak > Zer egin ikastaroa behin betiko uzteko? > eskola-uztea jakinarazteko inprimakia)

➤ **Ikastaroen aprobetxamendu-irizpidea**

Lanorduetako zein lanorduz kanpoko ikastaroen aprobetxamendua neurtzeko irizpidea honakoa izango da: ikasleak **%80ko asistentzia izan** behar du gutxienez, ikastaro osoa kontuan hartuta.

Aprobetxamendu-irizpide hori bera hartzen da kontuan EAEko eta bere Erakunde Autonomoetako herri funtzionarioen lan-baldintzak arautzeko Hitzarmeneko 11. atalean zehazten den baimena ematerakoan.

IVAP – 2013.05.02.